



Abaraska-sits handiaren harrak polietilenoa jaten duela jakin dute



Zoriari esker jakin dute abaraskak suntsitzen dituen har batek polietilenoa jaten duela. Hain zuzen, etxeko erlauntzetan harrak zituela konturatu zen Espainiako Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiko ikertzaile bat, Federica Bertocchini. Abaraska-sits handiaren harrak ziren (*Galleria mellonella*). Argizariz eta eztiz elikatzen direnez, kalte handia egiten dute, eta, beraz, kendu eta plastikozko zorro batean jarri zituen. Handik ordu batzuetara ohartu zen plastikoa zulatu eta ihes egin zutela.

Hortik abiatu zen, beraz, ikerketa. Cambridgeko Unibertsitatearekin batera aritu dira ikertzen, eta frogatu dute harrak oso eraginkorrak direla polietilenoa degradatzen. Adibidez, ehun har gai dira 92 mg polietileno degradatzeko 12 ordutan. “Oso azkar da hori”, nabarmendu du Bertocchinik.

Urtean, 80 milioi polietileno-tona ekoizten dira; esaterako, horrekin egiten dira plastikozko zorroak, eta oso zaila da degradatzea. Adibidez, zorro meheek ehun urte inguru behar izaten dituzte berez desagiteko. Degradazio kimikoan, berriz, likido oso korrosiboak erabiltzen dira, eta, hala ere, hilabeteak behar izaten dira. Bestalde, bakterioekin ere egin dira polietilenoa degradatzeko probak, baina prozesua zeharo motela da.


Kostaldean isurtzen ditugun mikroplastikoak Ozeano Artikoraino heltzen dira

Ikertzaile talde batek lehenbizikoz deskribatu du Ozeano Atlantikotik Artikorako mikroplastikoen garraio masiboa, eta ondorioztatu du kostaldean isurtzen ditugun mikroplastikoak Ozeano Artikoraino iristen direla.

Ozeano Artikoa urruti dagoenez eta haren inguruan jende gutxi bizi denez, uste zen ez ziola askorik eragingo mikroplastikoen kutsadurak, ez behintzat munduko ozeano guztietan eta kostalde oso populatuak dituzten itsasoetan adina.

Horrenbestez, *Galleria mellonella* irtenbide

egokia izan daitekeelakoan daude ikertzaileak. Harrak berak ez ezik, ikusi dute kapuluak ere degradatzen duela polietilenoa, ukitze hutsarekin. Ikertzaileen esanean, litekeena da entzimaren baten bidez degradatzea. Hortaz, hurrengo helburua degradazio-mekanismoa argitzea da, balizko entzima identifikatzeko eta in vitro sortzeko, maila industrialean.



Bizirik topatu dute Himalaian 47 egun galduta egon den mendizalea

Erreskate talde batek Taiwango mendizale bat bizirik eta horren bikotekidea, hilik, topatu ditu 47 egunez Dhading Nepalgo barruti batean galduta egon ostean.



"Erreskate talde batek bizirik topatu zuen Liang Sheng-yu txangozalea eta hilda Liu Chen-chin bikotekidea", esan du Deependra Panjiyar Poliziak gune horretan duen bozeramaleak.

Bikotea martxoaren 9an ikusi zuten azkenengoz, Tipling gunean, hain zuzen, atzo topatu zituzten gune berean, eta biak kobazulo batean babestu ziren gune amiltsu batean ez atzera ez aurrera egin ezinik geratu ostean, Poliziaren arabera.

Erreskatatu eta gero, mendizalea Katmanduko Ospitalera eraman eta hango medikuek egoera "normalean" dagoela esan dute, hanketako batean gaizkoatu zaion zauri bat badu ere.

"Tratamendupean dago orain", gizonak 20 kilo inguru pisatzen dituelako eta desagertuta egon den tartean ura eta gatza baino ez dituelako izan elikatzeko, Binod Adhikari ospitaleko bozeramaleak azaldu duenez.

Athleticek seigarren postua berreskuratu du, Betisi irabazita (2-1)

Athleticek sendo jarraitzen du Europako postuetan sartzeko lehian eta sufritutako garaipena lortu du Betisen aurka, azken 15 neurketetan lortutako 10. garaipena da atzokoa. Betisek lanak eman dizkie bilbotarrei, datorren denboraldian Lehen Mailan jokatzeko ziurtatuta izan arren.

Lehoiak 2 eta 0 jarri dira aurretik bigarren zatian, Adurizek penaltiz eta Iker Muniainek buruz egindako golekin. Penaltia zalantzazko jokaldia izan da, baina, epailearen arabera, Aissa Mandik falta egin dio aurrelari donostiarrari area barruan.

Muniainek bigarrena sartu eta hiru minutura, Ruben Castrok andaluziarren gola egin du, Kepa Arrizabalagaren aldaratze bat aprobeztatuta. Gol bakarreko errentaren ondorioz, azken minutuetan urduritasuna izan da nagusi San Mamesen.

Azkenean, Athleticek hiru puntuak lortu ditu eta Europa Liga jokatzeko borrokan sartuta jarraitzen du. Vila-real aurretik du, puntu batera, eta Realak puntu bat atzetik. Hirurek irabazi dute jardunaldi honetan, azkenerraino borrokatuko dutela argi utziz.

Proba berriek duela 130.000 urte kokatzen dute gizakia Iparramerikan

Gizakienak direla uste diren alterazioak aurkitu dituzte duela 130.000 urteko mastodonte baten hezur hondakinetan, eta aurkikuntza horrek goitik behera alda dezake gizakia Iparramerikara iritsi zeneko kontakizuna.

Aipaturiko fosil hondarrak San Diegoko Naturaren Historiako Museoko paleontologo talde batek aurkitu zituen, Kaliforniako autobide bat berritzeko egiten ari ziren ohiko lanetan.

Hezurak, letaginak eta haginak —horietako asko oso apurtuta— aurkitu zituzten, ustez, mailu gisa erabilitako harri batzuekin batera lurperatuta. Aipaturikoa Ameriketako gune arkeologiko zaharrena litzateke, eta aurkikuntza Nature aldizkarian argitaratu dute.

"Aurkikuntza horrek gizakiak Mundu Berrira iritsi zireneko historia berridatziko du. Toki horretan aurkitu ditugun zantziek erakusten dute zenbait hominido espezie bizi zirela Iparramerikan duela 130.000 urte, orain arte uste baino 115.000 urte lehenago", adierazi du Judy Gradwohl San Diegoko museoko presidentek.

"Horrek galdera berriak sortzen ditu: Gizaki horiek nola iritsi ziren? Zeintzuk ziren?"

eguraldia

Larunbatean, hegoaldeko haizearekin giro epela izango da. Igandean, berriz, eguraldiak kaskartzera egingo du, bereziki arratsaldean. Astelehenean, ostarteak izango dira berriro. Tenperatura minimoak hotzak izango dira.

